

163. zenbakia
2014ko urtarrila



ale honetan zer?

- 3 Zerbitzua eta erabakiak
- 4 Sansebastianak 2014
- 6 Gugandik hasita
- 7 Turismoa
- 8 Azpeitia 2025
- 18 Kirola

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Urtarrilaren 22 eta 27 eta otsailaren 1, 2, 7, 13, 19 eta 25

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Urtarrilaren 30 eta otsailaren 5, 11, 22, 23 eta 28

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Urtarrilaren 25, 26 eta 31 eta otsailaren 6, 12, 18 eta 24

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Urtarrilaren 23 eta 28 eta otsailaren 3, 8, 9, 14, 17, 20 eta 26

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Urtarrilaren 24 eta 29 otsailaren 4, 10, 15, 16, 21 eta 27

zerbitzua eta erabakiak

zerbitzua



Sexu eta bikote harremanen aholkularitza zerbitzua

Plax! sexu eta bikote aholkularitza zerbitzua indartu du Udaleko Parekidetasun sailak. Honela, aurrerantzean zerbitzu profesional eta koordinatu bat eskainiko du, Azpeitiko Osasun Zentroa koordinatuz. Zerbitzuaren arduraduna Nerea Sancho sexologoa izango da eta bere esanetan, "sexu zailtasunak eguneroko beste zailtasunen pare daude, haurrak hezteko edo lana bilatzea bezala, esaterako. Zailtasun horiei aurre egiteko, ordea, tresnak erraz topa ditzakete herritarrek; familiarekin, lagunekin edo teknikariekin hitz eginez. Aldiz, herritarrek zailtasun sexuarekin aurre egiteko baliabiderik ez dute, eduki intimoak baitira". Zerbitzu berriarekin, gazte zein helduengana iristea nahi du Udalak, "sexua ez baita gazteekin soilik lotutako gaia", eta herritarrei dei egin nahi zaie beldurrak eta lotsak alde batera utzi eta beharra izan heinean, Plax! Zerbitzua erabiltzera.

Informazioa

- Txanda hartzeko edo kontsultarako telefonoa. 688 897 920
- Non. Sindikatu Zaharreko Bigarren Solairuan
- Ordutegia. 10:00etatik 13:00etara
- Arreta egunak. Urtarrilak 25, otsailak 22, martxoak 22, maiatzak 3, maiatzak 31, ekainak 28, uztailak 19, irailak 27, urriak 25, azaroak 29 eta abenduak 20.
- Internet bidezko kontsultak eta txanda hartzea. Txanda hartu ahal da www.azpeitikoudala.com/sexua webgunean

erabakiak

Urtarrilaren 7an egindako Udalbatzak honako erabakiak hartu zituen:

- 1.- Maialen Agirre Bereziartua hautagaiak zinegotzi izaera hartu zuen.
- 2.- Azpeitiko Udalean 2013-17ko epean euskararen erabilera normalizatzeko plana behin betikoz onartzea, V. plangintzaldirako helburuak finkatzen dituen 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak diotenari jarraiki, aho batez onartu zen.
- 3.- Loiolako Ignazio etorbidea 1-17ko eraikuntza eta aurrealdeko urbanizazio eraberritze obrari dagokion zergaren hobaria aho batez onartu zen.
- 4.- Perdillegi kalean lurzoru publikoaren lagapena aho batez onartu zen.
- 5.- Azpeitiko baserritarrek behar duten gutxieneko urarengatik diru-laguntza emateko oinarriak aho batez onartu ziren.
- 6.- 2011ko urriaren 4ko Udalbatzan Lapatx Zabortegia ixtearen eta balorazio energetikoaren planta egitearen aldeko aurkeztutako mozioan inguruan hartutako akordioaren inguruko erabakiaren eztabaida, eta Bilduren proposamena Bildu eta EAJ taldeen bozkekin onartu zen, Hamaikabat abstentitu egin zen.
- 7.- Udalak Sansebastianetan danborzaleei, beraiek egoki ikusi eta horrela onartzen badute, irakurtzeko testu proposamena egin arren, gaia ez zen bozkatu.
- 8.- Alkatetzak 2013ko apirilean eta maiatzean emandako ebazpenen berri eman zen.

Dena prest San Sebastian festak ospatzeko

Heldu zein hurrek, Azpeitiko kaleak girotuko dituzte



Oihane eta Naiara Larrañaga.
Karrozaren egileak.



Aurtengo leihaketako irabazleak

1 .300 danbor-jole, 9 musika pieza, 25 elkarte, 700 haur eta gazte... Datu hotzak bakarrik eman dezakete, baina Azpeitiko festarik parte-hartzaileenari buruz ari gara. Urtero bezala, bi egunetan zehar danbor eta barrika hotsez beteko dira herriko kaleak.

Bezperan danbor-jole helduek igaroko dituzte herriko kaleak eta San Sebastian egunean berriz, haurrak izango dira protagonista. Umeek, gainera, helduek iaz estreinatutako "Goizeko Izarra" pieza joko dute lehenbizikoz. Udalak Azpeitiko idazle, historialari eta kronista ofizialari omenaldi txikia egin nahi izan dio eta aurtengo karrozaren gaia, bera izango da. Karrozaren egileak Oihane eta Naiara Larrañaga dira, Etchola Atelier enpresako kideak.

Iritsi dira sansebastianak, zer sentipen dituzue?


Lasai, gaude. Espero baino hobeto. Behar bada, Gabonetan gainean ikusten genuen festa, baina epeak ondo errespetatu dira, dena oso ondo joan da eta lasai gaude.

Lan gogorra izan al da?

Gogorra baino gehiago, gustukoa. Orokorrean egia da lan asko dela, batik bat, proiektua egitea, baina gero proiektu hori errealitatera pasatzen ari dela ikustea ederra da.

Emaitzarekin gustura gelditu al zarete? Herriarren iritziak entzuteko beldurrik?

Begiratu eta kontrolatu beharreko gauzak egon dira, aurrekontua adibidez, baina emaitza oso ona da. Jendearen erantzunari dagokionez, sentsazio berria izango da. Ondo etortzen da iritziak entzutea, baina azkenean gu gustura gelditu gara lanarekin eta hori da garrantzitsua. Beraz, beldurrik ez. Dena ondo joatea espero dugu, eta ea zer dioen gero jendeak.



san sebastian festa egitaraua 2014



18, LARUNBATA

18:30etatik 21:30etara, JAINEKIN

TXARANGAREN emanaldia kaleetan zehar

10:15ean, Herriko agintariak KORPO-RAZIOAN Eliza Nagusira joango dira.

10:30ean, Herriko Kaleetan zehar PROZESIOA.

10:45ean, San Sebastian Eliza Nagusian MEZA NAGUSIA OLAZKO AMARI Parrokiko eta Julian Barrenetxeako Abesbatzen laguntzarekin.

Egilea: J.M.Altuna. Zuzendaria: Felipe Murillo Organujoea: Jose Luis Frantsesena

12:00etan, SOKAMUTURRA Plaza Nagusian

12:30ean, Aranetik eta Artzubiatic irtenda HAURREN DANBORRADA karroza ikusgarriarekin. Aurtengo karrozaren gaia,

Izenburua: IMANOL ELIAS ODRIOSOLA (1936-2013)

Azpeitiko idazlea, historialaria, eta herriko kronista ofiziala

Karrozaren egileak: Oihane Larrañaga Mendia eta Naiara Larrañaga Agirre azpeitiarrak

16:30ean, SOKAMUTURRA kaleetan zehar

16:00etatik 20:00etara, HAUR PARKEAK Olazko Amaren Plaza

22:45ean, Irteera: Sanjuandegi auzotik herriko kaleetara abiatuko dira, Olazko Andre Mariaren Plazatik, Enparan Kalea, Erdikale, Elizkale, Done Jakue kalea eta bukaera Plaza Nagusian izango da.

24:00etan, Bandera jaitea Azpeitiko sei elkarterekin: Zezenzaleak (B)- Barrenetxea (T/B)- Oilo Soro (B) - Irrintzi (T)- Txalintxo (B)- Arauntza (T) - AZPEITIKO UDAL MUSIKA BANDAK lagunduta.

19, IGANDEA SAN SEBASTIAN BEZPERA

12:00etan, Sokako zezen txikia Erdikalea Plaza Nagusira

ZEZEN TXIKIAK eta PONIAK
Zezen Beltzen eskutik, Plaza Nagusian

16:30ean, SOKAMUTURRA kaleetan zehar

22:15ean, Olazko Andre Mariaren Plazatik irtenda, herriko Kaleetan zehar HELDUEN DANBORRADA.

24:00etan, Talde guztiak elkartuta Plaza Nagusian danborradako doinuak joko dituzte. Egileak: J.Azarola, J.L. Frantsesena eta R.Sarriegi

20, ASTELEHENA, SAN SEBASTIAN EGUNA

09:00tan, Herriko kaleetan zehar Txistularien eta Musika Eskolaren GOIZ-ERESIA. Egilea: J.I. Aldalur. Mold: J.M.Altuna

09:30ean, ARDOZALEAK eta GURE AMETSA Taldeek, Udal Musika Bandarekin batera eta Musika Eskolako Txilibatuak kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar. Egileak: J.I. Aldalur eta J.L. Frantsesena.

Etorkizuneko Azpeitia diseinatzen

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa talde politiko, teknikari eta herritarren partaidetzarekin osatu da



XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

2025. urtean Azpeitia nolako herria izango den diseinatzen hasi da Azpeitiko Udala, eta dagoeneko finkatu ditu lerro nagusiak. Ildo nagusi horiek, Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa osatu dute. Plan Estrategikoa herriaren garapen integrala dela nabarmendu du Eneko Etxeberria alkateak: “Lehendik Udalak edota udal erakundeek zituzten planak gehitu eta eguneratu egin dira, eta gizartea, ekonomia eta ingurumen arloak txertatu dira, herriaren garapen integrala aurreikusten duen plan bat eginez lehendabizikoz. Horregatik, plana egiten parte hartu duten guztiak zoriondu nahi ditut egindako lanagatik, ekarpenengatik eta lortutako adostasunagatik. Plan Estrategikoa egitea luze joan da, baina pena merezi izan du”.



“Udalbatza osatzen duten hiru talde politikoez, Bildu, EAJ eta Hamikabat, aho batez onartu zuten Plana”

Plan honen bitartez, Azpeitiko datozen urteetarako norabidea zehaztu da, egungo egoera ekonomikoa aintzat hartuz eta iraunkortasun baloreetan oinarrituz. Udalbatzak urriaren 1ean onartu zuen Plana, aho batez, talde politiko guztiek finkatutako norabidearekin eta adostutako helburu estrategikoez bat etorritik. Helburuen artean, udalerriko garapen ekonomikoak eta enpleguaren sustapenak pisu nagusia dute, egungo egoerak hala eskatzen baitu, eta Udalak arlo honetan lidergo zuzena izan nahi duelako.


Lanketa 2012ko abenduan hasi eta 2013ko irailean amaitu zen eta Udalsarea 21ek emandako finantziarioari esker egin da. Urtean zehar udalerriko sektore ez-



berdinak ordezkatzen dituzten eragileekin batera landu da, epe luzerako ikuspegia eta elkarrekin bide berria marraztuz. Horretarako, hiru lantalde sortu eta lanean aritu dira: Herritarren Mahaia, Teknikarien Mahaia eta Politikarien Mahaia. Eneko Etxeberria alkateak azaldu zuen bezala, parte-hartze prozesuak

“Hiru lantalde sortu eta lanean aritu dira: Herritarren, Teknikarien eta Politikarien Mahaia”

Denon Artean ekimenarekin lotura zuzena izan du. “Plan bizia eta erabilgarria da, izan ere, jarraipena egingo zaio urtero eta batu beharreko ekintzak edo helburuak gehituko zaizkio edota finkatutako asmoak betetzen ari garen jakingo dugu”, agertu zuen Etxeberriak.



Aitor Gorrotxategi EAJ.

“Plan Estrategikoaren inguruan hiru aspektu nabarmenduko nituzke, irekia eta malgua den Plana da eta kontrola izango du. Modu honetan, zerbait aldatu behar bada dokumentuan, egin ahalko da”

Aitor Aranguren Hamaikabat.

“Epe luzeko ikuspegia garrantzitsua da, beti ere, egunerokotasuna ahaztu gabe. Honelako planek epe luzeko ikuspegia mantentzea eskatzen dute, Udalean unean dauden talde politikoez haratago, proiektu asko epe luzera begira egiten direlako”

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa etorkizuneko helmugak finkatzen ditu. Azpeitiarrok etorkizuna irabazteko lehenik nora joan nahi dugun finkatu behar dugulako. Planak herritar ugari, eragile, tekniko eta herri-ordezkariek batera jarri ditu lanean, guztiak ikuspuntu desberdinak konpartituz. Eta azkenik, guztiok batzen gaituenean indarra jarriaz, erabateko adostasun mailarekin onartu da.

PARTE-HARTZE MEKANISMOAK

Parte-hartzean oinarritutako Plana da hau, eta herri-ordezkariez gain, Udaleko teknikariek eta herritarrek berebiziko garrantzia izan dute proiektuan. Honela, parte-hartze planteamendua Udalak jada abian zituen mekanismoetan oinarrituta egon zen eta herritarren parte hartzea definitzeko orduan, Denon Artean prozesuarekin integratu zen, mekanismo paraleloak saihesteko.

Modu honetan, hiru mahai sortu ziren:

HERRITARREN MAHAIA



HERRITARREN MAHAIA

Azpeitiko sektore desberdinetak ordezkatzen dituzten eragileez osaturiko taldea da (lehen sektorea, enpresak, hezkuntza...). Alde batetik, Denon Artean prozesuan parte hartzen duten eragileak izan dira, beste eragile batzuk Udaletik gonbidapen zuzena jaso dute, arlo desberdinen ordezkapena bermatzeko eta gainera, deialdi guztiak irekiak izan ziren edozein herritarrek bertaratzeko aukera izan zezan.



TEKNIKARIEN MAHAIA

Udaleko sail guztietako ordezkariek hartu zuten parte, baita eskualdeko garapen ekonomiaz eta landa garapenaz arduratzen diren erakunde ezberdinen ordezkariek ere.



POLITIKARIEN MAHAIA

Talde honetan Udaleko ordezkaritza politiko osoak hartu zuen parte. Prozesu osoan zehar herritarren eta teknikarien mahaietan landutakoa Mahai honetara eramanten zen, proiektuaren une garrantzitsuenen jarraipena eginez.

EKINTZA PLANAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Modu honetan, Azpeitiko etorkizuna diseinatzen duen Plan Estrategikoa 11 lerro estrategikotan egituratzen da, guztira, 55 programa eta 257 ekintza zehatz jasotzen dituelarik.

Hauek dira, hain zuzen, Plan honen eduki nagusiak:



GARAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUARI DAGOKIONEZ

Planak, datozen urteetarako udalerriko garapen ekonomikoa bultzatzeko planteamendua jasotzen du. Izan ere, garapen ekonomikoa eta enpleguaren eremuak Ekintza Planaren garrantzi edo pisu handieneko gaiak dira.

Udalak arlo honetan lidergo zuzena izan nahi du. Horretarako, eskualde mailan sektore ekonomiko guztiak bultzatu eta hauen lehiakortasuna sustatzen laguntzen duten erakundeekin elkarlanean, aritzea planteatzen da, baliabide propioak erabiliz.

Udalerriko sektore ekonomiko ezberdinak bultzatzeko ekintzak jasotzen dira: nekazar eremuan, sektore industrialean, merkataritzan eta turismo arloan, hain zuzen ere.

Sektore guztietan enplegua sortu eta lan merkaturatzea erraztu, ekintzailetasuna bultzatu eta iraunkortasun zein berdintasun baloreak enpresa arloan txertatzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira.

Garapen profesionala eta langabetuen lan merkaturatzea errazteko dagokion heziketa sustatzea bilatzen da. Heziketa enpresen beharretara ahalik eta modu aproposenean egokitzea planteatzen da, lanbide heziketan arreta berezia jarritz.



EREMU SOZIALEI DAGOKIONEZ

Plan honek gizarte segmentu ezberdinei zuzendutako ekintzak jasotzen ditu: hirugarren adina, haur, nerabe eta gazteak eta etorkinak besteak beste. Etorkinei dagokionez, politika asistentzialetatik interbentzionistetarako pausoa ematen jartzen da arreta.

Bestalde, parekidetasunaren aldeko apustu sendoa egitea proposatzen da, Udal barnetik hasita. Zentzu honetan, gai hau guztiz zeharkakoa denez, Plan osoan zehar berdintasun ikuspegia txertatu da.

Etxebizitza sozialak eta alokairua sustatzeko ekintza ezberdinak jasotzen dira, herrian hutsik dauden etxebizitzak merkatura ateratzea errazteko neurri ezberdinak sustatuz.

Azkenik, Udaleko Gizarte Zerbitzuek diru laguntzak emateaz gain, herritarrei beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen dizkiela ezagutarazi nahi da, sail honen irudia hobetu asmoz.

PROZESUAREN FASEAK


Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa egiteko prozesua hainbat fasetan banatu da:



Hasieran, egoeraren **DIAGNOSTIKOA** egin zen, Azpeitiko egoera ekonomikoa eta soziala ezagutzeko asmoz. Horrez gain, kultura, euskara eta kirolarekin erlazionatutako gaiak ere aztertu dira. Diagnostikoan herriko egungo gabezi eta ahultasun nagusiak identifikatu dira, gogor heldu beharreko gai zehatzak mahai gainean jarriz.



Jarraian, Planaren **FORMULAZIO ESTRATEGIKOA** egin zen, hau da, 2025 urtera begira ikuspegia definitu, hainbat xede ezarri eta planaren helburu estrategikoak identifikatu ziren.



Ondoren, arlo soziala eta ekonomikoa jorratzen dituen **EKINTZA PLAN**aren formulazioa egin zen eta horretarako, diagnostikoan identifikatutako gabezi edo ahultasunak kontuan hartu ziren.

Azkenik, Ekintza Plan hau eta 2010 urtean onartu eta indarrean dagoen Agenda 21eko Planarekin batu egin ziren, **AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA** osatuz.

PROZESUAREN GAKO NAGUSIAK

Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa egiteko prozesuak hainbat berezitasun izan ditu, honako hauek dira nabarmentzekoak:



1. Prozesua berritzailea eta eraginkorra. Prozesua berritzailea izan da eta oso egoera baten neurrira egin da. Gainera, lana ahalik eta modu eraginkorrenean egin da, aurretik eginga eta indarrean zegoen lan guztia aprobetxatuz, eguneratuz eta elementu berriak batuz.

2. Udalaren lidergoa. Udaleko kideen lidergoa eta inplikazio zuzena izan da gakoetako bat eta horregatik, Plana datozen urteetako Udalaren estrategia bihurtu da.

3. Indarra hartzen joan da. Prozesuaren zehar indarra hartzen joan den proiektua izan da eta hasiera batean berrikuste partzial bat izan behar zuen proiektuak, Azpeitiko Plan Estrategikoa izaten amaitu du.

4. Parte-hartze integratua. Parte-hartze prozesua kudeatzeko hiru mahai sortu ziren, non herri-tarrak, Udal eta eskualdeko telnikariak eta politikariak elkartu ziren. Hiru mahaiak modu paraleloan egin zuten lana prozesu osoan zehar, elkarren artean konexio puntuak lortuz.

5. Eskualdeko ikuspegia. Eskualdeko eragileek parte-hartze zuzena izan dute prozesu osoan eta honek, beste ikuspuntu bat eman zioen proiektuari, guztiz aberastuz.

6. Herritarren mahaia. Herritarren inplikazioa eta erantzuna oso positiboki baloratu da, eta etorkizunera begira, kontutan hartu beharreko talde eragile bat sortu dela esan daiteke. Partaideek herria bere osotasunean ikusteko gaitasuna azaldu dute, bakoitzak izan ditzakeen inteteres pertsonalak alde batera utzi eta Azpeitiko ondasun amankomuna helburu izan dute.

7. Planaren jarraipen eredua. Urtero Planaren jarraipena egingo da, planteatutako helburuak zenbateraino betetzen ari diren neurtzeko. Aldi berean, martxan jartzen diren ekintzekin zer nolako emaitzak lortzen diren baloratu ahalko da. Horrez gain, eta ebaluazioan oinarrituz, ondorengo urtean martxan jar daitezkeen jarduerak ere programatuko dira, aurrekontuekin lotzen saiatuz, horrela bakarrik bermatuko baita Planaren gauzatzea.





KULTURA, EUSKARA ETA KIROL EREMUEI DAGOKIONEZ

Kultura arloan, Planak eragile ezberdinen programazio bateratua lantzen jartzen du atentzioa (Kultura saila, Sanagustin eta gainerako elkarrekin eta sailak elkarlanean), bertan Kultur Mahaiaren inplikazioa eta jarraipen zuzena bultzatuz.

Euskarari dagokionez, Azpeitian euskararen erabilera oso altua denez, beste tokietan eman ezin diren pausoak emateko aukera dago. Zentzu honetan, euskararen erabilera lan munduan sustatzea proposatzen da, euskara gutxien erabiltzen den eremua baita. Horrez gain, 4. profilerak heltzeko baliabideak hala nahi duen herritar ororen esku jarri eta sustapen lana egitea planteatzen da.

Kirolean, berriz, alde batetik Plan bat garatzea proposatzen da, gai honetan jarraitu beharreko ildo edo lerro nagusiak eta plangintza zehatz bat finkatzeko asmoz. Bestalde, beste ekintzen artean, kirol eskaintza egungo eskaerari egokitzea planteatzen da.



LURRALDEAREKIN ERLAZIONATUTAKO GAIEI DAGOKIONEZ

Lurralde antolamenduaren eremuan, Plana zehazten duen irizpide nagusienetarako bat lurzorua berrerrabiltzea da, egoitza garapen berriak utzitako lur hutsetan ezartzea lehenetsiz.

Udalerriko etxebizitzaren birgaiketa bultzatzen da, bai hiri eremuan, bai landa eremuan.

Bestalde, ondare arkitektonikoa eta historikoa mantendu, kontserbatu eta behar den neurrian, birgaitzen joatea planteatzen da, udalerriak daukan ondare aberatsa baloreen jartzeko helburuarekin.

Landa eta natur eremuei dagokienez, paisaia eta bioaniztasuna balioan jartzea proposatzen da, horretarako lurzoru ez urbanizagarrietan kontserbazio eta hobekuntzarako irizpideak barneratu beharko dira.

Horrez gain, herriko fauna eta floraren kontserbaziorako ekintzak jasotzen dira, baita eremu berde eta espazio irekien garapena eta hobekuntza ere.

Hala ere, esan beharra dago, Ekintza Plana onartu berri den Hirigintza Antolamendu Plan Orokorra jasotzen dituen zehaztasunei egokitu behar dela.



PARTE-HARTZE ETA BARNE KOORDINAZIOARI DAGOKIONEZ

Planak barne koordinaziorako mekanismoen beharra mahai gainean jartzen du, horri erantzuna emateko, egitura egonkorra sortu eta beharrezko baliabideak eskaintzea proposatzen da.

Bestalde, Udal langile zein herritarrei zuzenduriko iraunkortasunari buruzko sentsibilizazioa bultzatzea planteatzen da.

Planak Udal eta heritarren arteko komunikazioa hobetu eta errazteko asmoz, komunikabide berriak irekitzea eta zabaltzeko beharra jasotzen du.

Eta honekin lotuta, herritarren parte-hartzeari bultzada inportantea emateko asmoa ere jasotzen da.



INGURUMENARI LOTUTAKO GAIEI DAGOKIONEZ

Planak ingurumenari lotutako gai edo eremu ezberdinak jorratzen ditu. Horien artean, prozesu honen bitartean, hondakin eta energiari buruzko lerroei garrantzi berezia ematen zaie.

Hondakinen inguruan, Planak prebentzioan eta kontsumo arduratsuan jartzen du atentzioa. Proposatzen diren ekimen ezberdinen artean, auzokonposta eta autokonposta sustatzea aipa daitezke.

Energiaren eremuan, kontsumo eraginkorraren aldeko ekintzak pisu handienekoak dira, bai Udal mailan (argiteria publikoan eta ekipamenduetan), bai etxebizitzetan eta orokorrean, sektore guztietan.

Planak uraren kudeaketa iraunkorra eta herriko jarduerak eta Udalak berak sor ditzaketen ingurumen inpaktuak murrizteko ekintzak jasotzen ditu, horretarako kontrolak hobetu, prebentzio neurriak hartu eta Udalean erosketak eta kontratazio publiko berdea ezartzeko planteamendua egiten da.

Eskualdeko Turismo bulegoak 21.000 bisitari baino gehiago izan ditu



Eneko Etxeberria, Juesus Mugika, Peio Bastarrika eta Iñaki Portilla Loiolako bulegoan.

oiolan kokatuta dagoen Eskualdeko Turismo Bulegoak 20.000 bisitarien langa gainditu du aurtien lehenbizikoz; 21.332 bisitari izan dira zehazki, 2012an baino %11 gehiago. Turisten profilari dagokionez, bisitarien ia erdia (%47) Espainiatik etorri da, %17an Hego Euskal Herriatik, %9a Kataluniatik, eta gainerakoak munduko beste herrialde batzuetatik. "Bailarako egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartuta, datu positiboa dela uste dugu, batez ere kontuan hartuta turismoa aukeraz betetako sektorea dela eta ekonomian izan dezaken eragina biderkatzailea dela", hala adierazi du Eneko Etxeberria Azpeitiko alkateak.

"Bailarako egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartuta datu positiboa da, turismoa aukeraz betetako sektorea da eta ekonomian izan dezaken eragina biderkatzailea da"

Iraurgi Berritzen garapen agentziak kudeatzen duen bulegoak izandako bisitarien igoera hainbat faktoreei esker izan dela esan daiteke; batetik, Aita Santu berriaren izendapena. Izendapen berriaren ostean, oihartzun handia izan zuen Loiolak komunikabideetan, eta garai hartan hasi zen bisitari kopurua igotzen. Gainera, izendapenaren ondoren, orain arte inoiz etorri ez diren agentziak hasi dira etortzen. Horrez gain, turismo eskaria, merkatua eta aisialdirako ohiturak aldatzen ari dira: azken urteotako krisiaren eraginagatik edo, barne turismoa (gertuko jendearen egun pasako desplazamenduak) gora doan fenomeno bat da.

Datuak onak dira, eta balorazioa positiboa da beraz, baina turismoaren sektorea eskualdean sendotzeko hobekuntzarako aukera gehiago badaudela uste da eta horiek baliatzea izango da orain erronka. Hauek izango dira, aurrera begira, Iraurgi Berritzen Turismo Sailaren eta turismo bulegoaren erronka nagusiak:

- Badaude bisitari batzuk Loiola bisitatu bai, baina Turismo bulegotik pasatzen ez direnak. Horiek bulegora bideratzea izango da erronka bat, Loiolako

Loiolara gerturatzen diren turistak Azpeitia eta Azkoitira bideratzea da Iraurgi Berritzen erroketako bat

gune monumentala ez ezik, bailarako beste gune eta baliabideak ezagutarazteko aukera izateko.

- Horrekin batera, Turismo Bulegotik pasatu ostean Azkoitia eta Azpeitira gerturatuko diren bisitarien kopurua handitzea ere helburu izango da, horretarako, ahalik eta eskaintza erakargarriena artikulatu eta baloratuz.
- Hori guztia, bailarako gainontzeko eragileekin (publiko nahiz pribatu) komunikazioa eta elkarlana hobetuta. Bertako jate-txe, hotel eta bestelako turismo alorreko enpresa pribatuekin elkarlanean aritzen da Turismo Bulegoa turismoa norabide guztietan sustatzeko. Lana bi norabidetan egiten da: Loiolako bulegoak enpresen txoko berezitua du, eskaintza hori bisitariari eskuragai jartzeko, eta enpresa horiek euren establezimenduetan bailarako informazioa ere zabaltzen dute.

Horrez gain, produktu berriak sortzerakoan eta diseinatzerakoan ahalik eta eragile guztiak kontuan hartzea nahi da. Lankidetzak hau, hain justu, oso garrantzitsua dela uste da, turismoa bertako sozio-ekonomia indartzeko erreminta eraginkorra delako eta horrek aukera handiak eskaintzen dituelako.

Gugandik hasita kanpaina herriko talde eta eragileetan hedatzen doa

Elkarte gastronomikoek eta hainbat kirol taldek bat egin dute hondakinak murrizteko asmoarekin

Azpeitiko Udalak hondakinak murrizteko asmoz, Gugandik hasita kanpaina jarri zuen abian iaz eta herriko talde eta eragile desberdinak bat egiten ari dira berarekin. Honela, azken hilabeteen elkarte gastronomikoek eta hainbat kirol taldek euren konpromisoa erakutsi nahi izan dute hondakinen kudeaketarekin.

Lagun Onak eta Ikasberri futbol taldeak, elkarte gastronomikoak, Iraurgi saskibaloia elkarteak, Karateko taldeak eta Kiroldegiko tabernak beren urratsa eman dute gaikako bilketa tasak igo asmoz eta ondorengo neurri zehatzak adostu dituzte Udalarekin:

- 1) Azpeitiko Udalak, konpromiso hau sinatzen duten herri eragileei, bilketarako bitarteko egokiak eskainiko dizkie. Horren baitan, hondakinak egoki sailkatzeko edukiontzia: marroia organikorako, horia ontzi arinentzat, urdina paperarentzat eta berdea errefusa biltzeko.
- 2) Azpeitiko Udalak, eragileei, bilketa egokia izan dadin euskarri komunikatiiboak helaraziko dizkie: kartelak, diptikoak, hiztegiak, hondakinen bilketa modu eraginkorrean gauzatu dadin.
- 3) Hau sinatzen duenak eta Azpeitiako Udalak hiru hilabeteen behin bilera bat egingo dute gaiaren inguruko gertakariak, azken ordukoak eta, halakorik ezean, jarraipena egiteko.
- 4) Eragileek euren bazkide, lankide edo taldekideen artean, taldeak Udalarekin harturiko konpromisoaren berri zuzena izango du eta gauzatzeko borondatea agertuko du.



Lagun Onak, Ikasberri Kirol elkarte eta Udaleko ordezkariak



Elkarte gastronomikoko ordezkariak udaletxean



Iraurgi saskibaloia elkarte, Karateko taldea eta Kiroldegiko tabernako arduradunak

Oihana Goenaga, 2013ko kirolaria

Kirol munduan gehien nabarmendu ziren kirolariak saritu ditu Udalak

Urteko balantzea egiteko garaia da eta urtero bezala, Azpeitiko Udalak kirol munduan nabarmendu diren herritarrak saritu ditu. Sari banaketa ekitaldia larunbatean egin zen udaletxeko areto nagusian. Kirol talde bakoitzak bere saritua aukeratu zuen eta guztien artean, Oihana Goenaga igerilari gaztea hautatu zen 2013ko kirolari onena bezala, urtean zehar izandako lorpenengatik.

Goenagak 2013an zehar besteak beste, urrezko dominak lortu ditu Neguko eta Udako Espainiako txapelketetan eta bere adineko Euskal Herriko errekorrak ditu. Gainera, Juan Jose Berziartua 'Gaztaina'-k, kirol aurkezle edo esatariari saria jaso zuen.



Oihana Goenaga eta Eneko Etxeberria

Hauek dira kirol taldeek izendatuta saritu dituzten kirolariak:

- Unai Orbea (Lagun Onak Txirrindulari Elkartea)
- Hugo Hidalgo (Azpeitiko Areta Futbol Taldea)
- Santiago Alberdi (Azpeitiko Karate Elkartea)
- Mikel Yeregi (Ilunpe Pilota Elkartea)
- Mikel Landa (Ikasberri Kirol Elkartea)
- Aitor Zubizarreta (Iraurgi Saskibaloia; saritutakoa AEBetan denez, arreba Maitek jaso du haren saria)
- Nerea Odriozola (Lagun-Artea Eskuderia)
- Oinatz Elustondo (Lagun Onak Futbol Taldea)
- Asier Aizpuru (Xeye Atletismo Taldea)
- Unai Lazarobaster (Lagun Onak Mendi Bazkuna)
- Josu Garcia (Garmendipe Bolo Taldea)
- Gaizka Larrañaga (Kimura Judo Kluba)
- Julen Agirrezabala (erremontista) beste modalitateetan aipatzekoak izan diren kirolarien sailean jaso du saria.



Saritu guztiak Udal ordezkarekin

Belar artifizialeko futbol zelai berria erabilgarri dago jada



Garmendiperi pegatuta dagoen Anexoan belar artifizialeko futbol zelai berria abian da jada. 2013 urte amaieran inauguratu zen Lagun Onak eta Ikasberri futbol taldeekin eta Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea, Ikerne Badiola Foru Aldundiko diputatua eta Eneko Etxeberria Azpeitiko alkatearen partaidetzarekin, besteak beste.

Lanek, 340.000 euroko aurrekontua izan dute, baina Azpeitiko Udalak %20a bakarrik ordaindu du, gainontzekoa Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako Futbol Federazioak emandako diru laguntzetatik ordaindu baita.

“Lanek, 340.000 euroko aurrekontua izan dute, baina Azpeitiko Udalak %20a bakarrik ordaindu du”

Kirol zinegotzi den Manuel Unanuek agertu duenez, futbol zelai berri baten beharra aspaldiko eskaera izan da herriko Lagun Onak eta Ikasberri futbol taldeen aldetik. “Azpeitiko futbol taldeak 13 izatetik 19 izatera igaro dira azken bost urteetan. Honek, zailtasunak ekarri dizkie taldeei, lekuri ez dagoelako denentzeko; zelai erdia bakarrik erabili dezakete bi talde batera aritzeko eta gaueko 22:00ak arte erabiltzen dira instalazioak. Gainera, teknifikazioko 250 haur eta eskola kirolekoak ere kontutan hartu behar dira”.

EKINTZA PLANA

Udalak ordea, ez du Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa paperean idatzita egoteko txostena egin. Planak asmoak, xedeak eta helburuak izateaz gain, ekintza zehatz eta eraginkorrak ditu. Guztira, 257 ekintza jasotzen ditu eta ekintza guzti horiek, ondorengo 11 lerro estrategikoetan banatzen dira:



1. AZPEITIKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO DESBERDINAK BULTZATZUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ
 - Udaletxeko aurrekontuetan herriko garapen ekonomikora bideratutako partida edota ekarpenak egonkortu eta behararren arabera urtez urte egokitzen joan.
 - Lehen sektorean ondorengotza sustatu, gazteak nekazal mundura erakarri eta etorkizunerako aukera bezala ikus dezaten.
 - Enpresa haztegi zerbitzua eskaini azpeitiarrei, Udalaren esku dauden lokal hutsak horretarako gaituz.
2. HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ ETA ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIALA SUSTATUZ
 - Gizarte Zerbitzuak biztanleei hurbildu, bertatik eskaintzen diren zerbitzu eta programen informazioa eskainiz.
 - Udaletxe mailan burutzen diren azterketa eta ebaluaketa ezberdinetan eta sial desberdinetan emakumenzko eta gizonezkoen arteko datu bereizketa barneratzen joan.
 - Etorkinak gizarteratzen eta herrian integratzen lagunduko duten ekimen desberdinak bultzatu.
3. HERRITARREI ZUZENDURIKO HEZKUNTZA ESKAINTZA EGOKITU ETA EUSKARAREN SUSTAPENA EGIN
 - Haur eta gaztetxoei zuzendutako beka sistema mantendu.
 - Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko bitartekoak jarri.
4. HERRIKO TALDEEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKIA DISEINATU ETA ESKAINI
 - Azpeitia kultur arloan, bailarako erreferente gisa garatu.
 - Jarduera fisikoa sustatu osasunean, hezkuntzan, ekonomian, enpleguan...
5. IRAUNKORTASUN BALOREETAN HERRITARRA SENTIKORTU, HEZI, INFORMATU ETA UDAL KUDEAKETAN PARTE HAR DEZATEN BERMATZEA
 - Herriko parte-hartze eredu definitu.
 - Guraso, irakasle eta ikasleen artean hezkuntza bateratuko programak antolatu ingurumen gaiak landuz.

6. LURZORUAREN ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA OREKATU BATEN ALDEKO APOSTUA EGIN, UDALERRIKO NATUR, PAISAIA ETA BIOANIZTASUNA ZAINDUZ ETA HIRIGUNEEN KALITATEA HOBETUZ
 - Etxebizitza hutsen erabilera sustatzeko neurriak hartzea aztertu.
 - Azoka zaharra birgaitzeko proiektua landu.
 - Landa gunean garapena kontrolatu eta indarrean dagoen legedia aplikatu.
7. HERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEekin ASETU
 - Irisgarritasun Plan berria egin eta garatu, ahal dela mugikortasun murriztua duten pertsonen iritzia jasoz.
 - Etxebizitza berrien esleipenean, bizikletak gordetzeko guneak egokitu.
8. ENERGIA MURRIZPEN, ERAGINKORTASUN ENERGETIKO ETA ENERGIS ITURRI BERRIZTAGARRIEN ERABILERAN OINARRITUKO DEN ENERGIA EREDUA LORTZEA
 - Eraikin publikoetan energia kontsumoa murriztu.
 - Zerbitzu sektorean eraginkortasun energetikoa sustatzeko mekanismoak ezarri.
9. KONTSUMO ARDURATSUA BULTZATUZ HONDAKINEN SORKUNTZAREN PREBENTZIOA BULTZATZEA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA BIDERATZEA
 - Ondasun eta produktuen konponketaren sustapena.
 - Autokonposta eta auzokonposta sustatzen jarraitu.
10. URAREN KUDEAKETA IRAUNKOR ETA ERAGINKORRA BURUTZEA
 - Udal eraikinetan ur aurrezpen sistema berriak jarri.
 - Saneamendu sarea osatzeko falta diren ekimenak burutu.
11. HERRIKO JARDUERAK ETA UDALAK BERAK SOR DITZAKETEN INGURUMEN INPAKTUAK MURRIZTU, KONTROLAK HOBETUZ, PREBENTZIO NEURRIAK HARTUZ ETA UDALAN EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA EZARRIZ
 - Emisio foku ibentarioa egin.
 - Udal planeamenduan lurzorua kalitatearen inguruko irizpideak txertatu.

ONDO PASATU SANSEBASTIANAK

2014

